

KOSTUEN EGITURA

Kostu finkoak eta aldakorrak aztertuko ditugu, birziklapen eta ingurumenaren zaintzaren prozesuan sortzen diren gastuak azaltzeko.

Kostu finkoek gastu iraunkorrak eta aurreikusi daitezkeenak barne hartzen dituzte. Alokairua instalazioen eta furgoneten ordainketak dira, hain zuzen ere beharrezko azpiegiturak eta garraiobideak mantentzeko. Langile finkoen soldatak barne hartzen ditu, hau da, enpresaren 5 langileek jasotzen duten soldata finkoa. Aseguruak instalazioen, furgoneten eta medikuntzaren inguruko aseguruaren ordainketak dira, enpresaren segurtasuna eta langileen ongizatea bermatzeko. Horretaz aparte, langileen gizarte segurantzak ordaintzen ditugu. Azkenik, publizitate-kanpainen gastuak barne hartzen dira, produktua eta zerbitzuak merkaturatzeko egiten diren kanpainen kostuak. Sortutako publizitate-bideoa, kartelak, bisita-txartelak... adibidez.

Kostu aldakorrek aldiz, ekoizpenaren edo produktuen salmentaren arabera aldatzen diren gastuak adierazten dituzte. Edukiontzia sortzeko behar ditugun materialak dira, eta hauek erabiltzeko edo produktuak sortzeko beharrezkoak direnak. Eskulan aldakorrak automatistaren zerbitzuen kostuak biltzen ditu, hau da, produkzioan edo birziklapenean parte hartzen duten langileak. Hornidurak, produktuen ekoizpena handitu ahala kontsumitzen diren produktuen gastuak dira, eta garraio- eta bidalketa-gastuak, berriz, edukiontzi gehiago saltzen diren heinean, garraio kostuak handitzen doazenak.